

**Ebazpena: R 16/2022**

**Espedientea: 47/2015 eta 18/2016.**

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren (aurrerantzean ATKIN) aurka planteatutako gatazkei buruz, BSL zergapekoak aurkeztutako kontsultei dagokienez, zeinak 47/2015 eta 18/2016 espediente-zenbakiekin izapidetzen baitira.

### **I. AURREKARIAK**

1.- BSLk kontsulta bat egin zion Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari, 2015eko martxoaren 20an, ibilgailu industrialak eta horien ordezkopiezak saldu eta konpontzeko l-(r)en emakidadun gisa egiten zituen eragiketen kokapenari buruz.

BSLk adierazten du egoitza soziala eta fiskala Bizkaian dituela, Burgosen sukurtsal bat duela eta bi lekuetan egiten dituela ibilgailuak eta ordezeko piezak saltzeko eta horiek konpontzeko hiru jarduerak.

Burgosen saltzen diren ibilgailuen entrega fisikoak sukurtsalean egiten diren arren, fakturen kudeaketa, dokumentazioaren bidalketa eta gainerako izapide administratiboak Bizkaiko etxe nagusitik egiten dira.

BSLk galdetu du ea non kokatzen diren eragiketa horiek.

**2.-** Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak erantzun-proposamen bat egin zuen, eta 2015eko maiatzaren 11n bidali zion Eusko Jaurlaritzari.

**3.-** 2015eko uztailaren 6an, Eusko Jaurlaritzak Estatuaren proposamenari buruzko oharra edo desadostasunak adieraziz erantzun zuen.

**4.-** Hurrengo bi hilabeteetan akordiorik lortu ez zenez, BFAk gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari, 2015eko irailaren 29an, 47/2015 Gatazka zenbakiarekin.

2015eko irailaren 14ko idazkiaren bidez (2015eko urriaren 8an erregistratu zen), Estatuak Arbitraje Batzordeari ere helarazi zion gaia; hala ere, gatazka BFAk planteatu zuenez, ez zitzaion espediente-zenbaki berririk ezarri.

5.- BSLk 2015eko martxoaren 20an aurkeztutako kontsulta berari dagokionez, 2015eko abenduaren 23an Eusko Jaurlaritzak beste txosten bat helarazi zion Estatuari, erantzun-proposamen batekin.

6.- 2016ko otsailaren 29an, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak oharren edo desadostasunen beste idazki bat aurkeztu zuen.

7.- 2016ko maiatzaren 5ean, BFAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua babespean. Gatazka hori 18/2016 zenbakiarekin izapidetzen ari da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 64. artikulua egikizun hauek esleitzen dizkio Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari:

*“b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.*

*Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko”.*

Beraz, Arbitraje Batzordeak eskumena du BSLk planteatutako zerga-kontsulta ebazteko, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean ez baita akordiorik lortu.

## **2.-** Prozedura bereziari buruz.

Ekonomia Itunaren 64. artikuluan xedatutakoa betez, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren oharrak jakinarazi eta akordiorik lortu gabe 2 hilabete igaro ondoko hilabete 1eko epearen barruan aurkeztu da gatazka.

Abenduaren 27ko 10/2017 Legeak prozedura laburtua sartu zuen Ekonomia Itunaren 68. artikuluan, honela:

*«Bi. Prozedura laburtua aplikatuko da ekonomia-itun honetako 64. artikuluko b) letrako eta 47.ter artikuluko Hiru apartatuko kasuetan.*

*Kasu horietan, auziak izapidetzeko hilabeteko epean onartu beharko ditu Arbitraje Batzordeak, aurkezten direnetik zenbatzen hasita; hamar*

*eguneko epe komuna emango die ukitutako alderdi guztiei alegazioak egin ditzaten, eta epe hori bukatu eta hilabetean eman beharko du ebazpena.”*

10/2017 Legeak ez zuen xedapen iragankorrik jaso 64.b), artikuluko prozedura laburtua aplikatzeko, 47.ter artikuluko prozeduretarako kontrakoa egin zuen arren.

Arbitraje-batzordearen Erregelamendua onartzen duen 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua arabera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea jo behar da prozeduren araubide iragankorra zein den ikusteko, honako hau xedatzen baitu:

*“a) Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurei ez zaie aplikatuko lege hau, eta, beraz, aurreko araudiari jarraituko zaio halakoetan.*

(...)

*d) Lege hau indarrean jartzean betearazteke dauden egintza eta ebazpenek, betearazpenari dagokionez, eman zirenean indarrean zen araudiari jarraituko diote.*

*e) Dagozkion lege- eta erregelamendu-xedapenetan aurreikuspen espresurik ez bada, administrazio-prozeduraren arloan sortzen diren zuzenbide iragankorreko arazoak aurreko puntuetan ezarritako printzipioen arabera ebatziko dira”.*

Horren arabera, ezinezkoa da 2017an, Ekonomia Ituna aldatzeko 10/2017 Legea indarrean sartu aurretik, hasitako prozedura laburtua aplikatzea.

### 3.- Eragindako arauak.

Ekonomia Ituneko 16. artikulua adierazten duenez, sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako, honako hauek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta daudela ulertuko da:

*“a) Ondasun-emateak:*

*1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzaillearen esku jartzen direnean. Ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea.*

*(...)*

*b) Zerbitzuak egitea:*

*1. Zerbitzuak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira”.*

Ekonomia Ituneko 28. artikulua adierazten duenez, BEZaren ondorioetarako, honako hauek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta daudela ulertuko da:

*“A) Ondasun-emateak:*

*1. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzaillearen esku jartzen direnean. Ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea.*

*(...).*

*B) Zerbitzuak egitea:*

*1. Zerbitzuak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira”.*

#### **4.- Estatuaren jarrera.**

Zergapekoak aurreko ekitaldian/urtean 7.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena izan zuenez, eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu behar ditu zergak.

Eragiketak foru-lurraldean edo lurralde erkidean kokatzeko, Estatuak honako irizpide hauek proposatzen ditu:

a) Konponketak, zerbitzu-prestaziotzat hartzen direnez, egiten diren lekuan kokatzen dira.

b) Ordezko piezen eta industria-ibilgailuen salmentak ondasun-emateak dira, eta, Auzitegi Gorenaren 2011ko apirilaren 13ko Epaia, Rover Epaia deiturikoa, aplikatuz (ECLI:ES:TS: 2011:2323), merkaturatze-lanak egiten diren lurraldean kokatzen dira.

#### 5.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren eta BFAREN jarrera.

Bi erakundeak ez datoz bat industria-ibilgailuen eta ordezko piezen entregean kokapenari dagokionez; izan ere, ROVER epaia kasu jakin baterako eman zela diote, eta kasu horretan ez dagoela arrazoi-berdintasunik kontsultaren xedearekin; beraz, uste dute ez dela zuzenean aplikagarria, eta, eskuratzaileraren eskura jartzen den lekua zein den jakiteko, lekura, Burgosko etxe zentralera eta sukurtsalera, jo behar dela hurrenez hurren, merkaturatzen den eta bezeroari eskuratzen zaion lekura, alegia.

#### 6.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

ROVER epaia ROVER ibilgailuen *“inportatzaileak”* egiten dituen eragiketen kokapenari buruzkoa da, kontuan izanik Gipuzkoatik sartzen direla, gero Arabako zelai batean geratzen direla biltegirotuta mantentze-lan txikiak egiteko eta handik kontzesionarioetara bidaltzen direla.



Epai horretan planteatzen denez, ROVER ESPAÑAk ez dizkie ibilgailuak ematen kontzesionarioei Araban, garraioa hasten den lekuaren irizpidearen arabera, arau intzidental hori Europar Batasunaren barruko garraioari bakarrik aplikatzen zaiolako, eta ez barne-garraioari.

Horrela, bada, eskurazailearen (kontzesionarioaren) esku utzitako lekuaren irizpide nagusira jotzen du epaiak, eta hori, ibilgailuen izaera berezia dela eta, eta Europar Batasunaren “*ondasuna entregatzea*” kontzeptua aplikatuta, ROVER ESPAÑAk ibilgailuak merkaturatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak dituen lekuan kokatzen da, non izapidetzen baita dokumentazioa kontzesionarioen alde.

Gogoratu behar da ROVER ESPAÑAk ez zuela txikizkako kontzesionarioak ibilgailuak ikustera eta erostera joateko kontzesionarioerik; aitzitik, zuzenean eskatzen zituzten azken bezeroei saltzeko ikusgai jarri nahi zituzten ibilgailuak, eta ROVER ESPAÑA arduratzen zen ibilgailu horiek erostez eta hornitzeaz. Hori dela eta, zaila da ibilgailuak haien eskura non jartzen zituen aztertzea eta haien aldeko dokumentazioa non kudeatzen zuen ondorioztatzea.

Kontsulta honetan, aldiz, I-ren ibilgailua erosi duen eta azken bezeroaren alde merkaturatzen duen kontzesionarioaren posizioan gaude.

Kasu honetan, ibilgailuak eta ordezkoko piezak azken bezeroa joaten den instalazioetan merkaturatzen dira; han erakusten zaio salgaia bezeroari, erosketari buruzko orientazioa eta aholkua emateaz gainera, eta bertan kudeatzen da salmenta, nahiz eta administrazio-lana etxe nagusian egin daitekeen.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea konponketak materialki egiten diren lekuan egiten direla, eta ibilgailuen eta ordezeko piezen salmentak sukurtsalean eta etxe nagusian egiten direla, hurrenez hurren, hau da, azken bezeroari merkataritza-lana egiten zaion lekuan.

2.- Erabaki honen berri ematea Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta BSLri.